

Izenak eta izanak

Amaia Alvarez Uri



Urte asko, mendeak pasa dira feminismoa abian jarri zenetik eta horrek zenbait ondorio ekarri ditu. Kapitalismoaren adibidea hor dugu. Gaur egun kapitalismo hitzak badu halako zahar kutsua, esanahi kate bat du eskegita. Horregatik beste izen batzuk erabiltzen ditu jendeak: (neo)liberalismoa, globalizazioa, mundializazioa... Izendapen berriak tarteko subjektua eguneratzea lortu dute, interneten refresh botoia sakatzen dugunean edukiak eguneratzen ditugun bezala. Kontua zera da, feminismo hitzarekin ere antzerako zerbait gertatu dela: denborarekin gaiztotu egin da haren esanahia. Matxismoaren kontrako mugimendua izanki, henbrismo delakoarekin identifikatzen dute batzuek, hau da, sexu diskriminazioarekin baina sexuen arteko hierarkiari buelta emanda. Oker dabilta, ordea. Feminismoa diskriminazioaren eta bazterketaren kontrako mugimendu soziala da; emakumeak menpekotasun egoeratik askatu eta euren eskubideak bermatu nahi duen borroka politikoa da.

Helburu hori lortzeko, hamaika bide jorratu ditu eta oraindik ere jorratzen dihardu. Horixe da jende askok ez dakiena, edo ikusi nahi ez duena. Aintzat hartu nahi ez duten beste kontu bat da mugimendu feministaren barruan aniztasuna dela nagusi, denetariko pentsamoldeei eta jokaerei, zenbaitetan kontrajarriak, toki eginez. Joera aniztasun hori argi geratu da azkenaldian, pornografia eta prostituzioaren inguruko eztabaiden inguruan.

Baina gatozen harira. Feminismo hitzak karga semantiko ezkorra duenez, zilegi ote da beste izen batzuk erabiltzea haren atzean den mugimendua gaurkotzeko eta esanahi okerrak baztertzeko? Ipar Ameriketara bide hori hartu zuten orain dela bizpahiru hamarkada, womanism eta sisterhood bezalako hitzak akuilatuz. Alabaina, ez zuten luzaro iraun. Akademian, berriz, ikasketa feministen barruan bi adar agertu dira: Women Studies alde batetik, eta Gender Studies bestetik. Adar biek indarrean jarraitzen dute oraindik, baita kontzeptu berriak plazaratu ere. Orain dela hogeit urte hasi zen genero hitza erabiltzen, eta indar handia hartu duela esan beharrik ez dago. Zutabegile honen kezka da generoaren izendapena ez ote den heldu feminismo hitza, mugimendua eta aldarrikapenak desagerraraztera... Hau da hartu behar dugun bidea? Genero ikuspegia esanez feminismoaren ekarpen guztiak deskafeinatu eta lanbrotu? Kaletik urrundu eta maila instituzionalean aritzera mugatu, hitzak ondo neurtuz? Mugimendu ideologiko eta iraultzailea dena erratzarekin garbitu eta alfonbra azpian ezkatutu? Femina / feminae, latineko hitzetik dator feminismo hitzaren lehen zatia. "Emakume" esan nahi du. Eta -ismo atzizkiak "mugimendua". Emakume subjektu politikoaren askapenerako mugimendua litzateke feminismoa, hortaz. Sistema patriarkalak emakume marka ezarri eta, horren ondorioz, gizarte taldeei begira desoreka indarrean den bitartean, feminismoa beharrezkoa eta onuragarria izango da denontzat. Gauza bakoitzak bere izena dauka. F